

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 2347

*EBAZPENA, 2026ko maiatzaren 19koa, HABEko zuzendari nagusiarena, dirulaguntzen deialdia egiten duena euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat baliabide horiek irisgarri egingo dituzten gailu eta egokitzapenak ezartzeko.*

Uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak, Helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duenak, bere 18. artikuluan ezarria dauka HABEK egin ditzakeela, betiere bere aurrekontu-bitartekoen muga-barruan, laguntza-deialdiak, alfabetatze eta euskalduntze-lanaren osagarri gisako jarduerak sustatzera zuzenduak.

Ildo horretatik, 2026ko Dirulaguntzen Urteko Plana onartzen duen eta 2025-2028 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzen duen 2026ko otsailaren 17ko Jaurkitzako Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Agindua Hizkuntza Politika alorreko helburu estrategikotzat helduen euskalduntzea bultzatzea aurreikusten du, besteak beste, euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako ekipamendu teknologikorako dirulaguntzak emanez.

Bestetik AROA marko estrategikoak «Euskararen ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta sortu» lan-ildoan hizkuntza-teknologiak garatzea proposatzen du euskara ikasi eta irakasteko. Gainera, hori guztia bat dator legealdi honen Gobernu Programaren 43. Konpromisoarekin «Euskararen ezagutza handitzea eta ingurune guztietan euskararen erabilera sustatzea», eta konpromiso horren 3. Ekimenarekin «Aparailu elektronikoetatik euskara autoikaskuntzako app bat sortzea».

Horrez gain, Hezkuntza-sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Legeak (LOGSE) hezkuntza-helburu berdinak ezartzen ditu hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat eta gainerakoentzat. Aldi berean argi eta irmotasunez adierazten du (3. artikulua) irakaskuntza guztien ezaugarrietara egokitzeko eta moldatzeko printzipioa. Beraz, ikasle horiek ez dute ikasle gehienek ohiko premiak asetzeko planifikatu eta garatutako irakaskuntza orokorrak eskaintzen dienera egokitu behar eta ez dute horrekin konformatu behar. Aitzitik, irakaskuntza egokitu behar zaio ikasle bakoitzari bere gaitasunen arabera eta bere premiei –bereziak izan edo ez– jarraikiz aurreratzea ahalbidetzeko.

Bidezkoa da, beraz, gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratzeko eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat baliabide horiek irisgarri egingo dituzten gailu eta egokitzapenak ezartzeko euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako dirulaguntzak bideratzeko oinarriak onartzea eta deialdia egitea.

Gainera, dirulaguntza deialdi honetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bermatuko da.

Horregatik, aipatu xedapenek eta otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak, HABEren egitura organiko ezartzen duenak, ematen dizkidaten eskumenez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko den abenduaren 21eko 20/2023 Legeak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege

Orokorrak eta Lege horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuak ezartzen dutenaren arabera, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Dirulaguntzen deialdia egitea euskaltegi pribatu eta euskararen autoikas-kuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat baliabide horiek irisgarri egingo dituzten gailu eta egokitzapenak ezartzeko, oinarri hauen arabera.

Bigarrena.– Interesdunei jakinaraztea ezen, ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez duenez, gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioketela Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2026ko maiatzaren 19a.

HABEko zuzendari nagusia,  
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

## OINARRIAK

1. oinarria.– Helburua eta zuzkidura ekonomikoa.

1.– Oinarri hauen helburua da dirulaguntzen baldintzak ezartzea euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat baliabide horiek irisgarri egingo dituzten gailu eta egokitzapenak ezartzeko.

Deialdi honetarako xede diren gelak digitalizatzeko baliabideak eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat baliabide horiek irisgarri egingo dituzten gailu eta egokitzapenak, jarduera hauek garatzeko erabiliko dira:

- Urrutiko irakaskuntza.
- Bilera birtualak.
- Bideo-konferentziazko saioak.
- Saioen grabazioa.
- Dokumentuak partekatzea.
- Aurkezpen interaktiboak.
- Ikasleen interakzio digitala.
- Euskararen irakaskuntzan erabilitako baliabide teknologikoak ikasle guztientzat irisgarri egitea.

2.– Zuzkidura ekonomikoa: dirulaguntza hauetan emango diren diru-kopuruak (120.000 euro) HABEren aurrekontuetan horretarako dagoen funtsetik emango dira.

Euskaltegi edo zentro onuradun bakoitzari eman dakioken gehieneko dirulaguntza deialdi honetako zuzkidura osoa (120.000 euro) euskaltegi bakoitzak aurreko ikasturtean (2024-2025) izandako ikasle-kopuruaren arabera hainbanatuz kalkulatu da. Kalkulu hori egiteko, HABEren erregistroan jasotako datu ofizialak hartuko dira oinarritzat.

3.– Dirulaguntza nori eman erabakitzeko segidako lehiaketa prozedurari jarraituko zaio. Eskabideek deialdi honetako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatutakoan, ordenan emango dira laguntzak, espedientea osatzen den unearen arabera, 2. puntuari aurreikusitako funtsak amaitu arte.

2. oinarria.– Onuradunak.

1.– Deialdi honen bitartez banatuko diren laguntzen onuradun izan daitezke euskaltegi pribatuak eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak, betiere ondoren zehazten diren baldintzak eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko den abenduaren 21eko 20/2023 Legearen (aurrerantzean DAEL) 13. artikuluan jasotakoak betetzen badituzte.

2.– Honako hauek dira eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

a) HABEren euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroyen Erregistroan inskribatuta egotea, eta datu guztiak egunean edukitzea.

b) DAELaren 13. artikuluan aurreikusitako egoeretan ez egotea.

c) Dirulaguntza-eskaria zuzen osatzea, deialdiaren II. eranskinean jasotako ereduaren arabera eta, eskariarekin batera 4. oinarrian eskatzen diren agiriak zuzen betetzea eta aurkeztea.

d) Dirulaguntza hauen onuradunek giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatuko dituzte eta, ondorioz, ezin izango dituzte agerian eduki, horiei dagokienez, herritarrentzako laidogarriak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen edo indarkeria iradokitzen duten ikurrak edo elementuak.

3. oinarria.– Diruz lagun daitekeena eta ekipamenduen betekizunak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz lagun daitezkeen gastuak 1. oinarrian definitutako ekipamendu teknologikoen erosketa-prezioa eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat baliabide horiek irisgarri egingo dituzten gailu eta egokitzapenei dagokiena izango dira, baldin eta inongo zalantzarik gabe behar-beharrezkoak badira eta 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko azaroaren 30era bitartean egin badira.

Ekipamendu eta baliabide horien eskuratze-kostuak ez du, inola ere, merkatuko balioa gaindituko.

2.– Ekipamenduek eskaera egiten duen entitatearen oraingo zein etorkizuneko irakaskuntza-jarduerak egiteko egokiak eta beharrezkoak izan behar dute.

3.– Eskatutako ekipamendu teknologikoa, funtsean, arbel digitalak eta proiektoreak izango dira, eta halaber, baliabide horiek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat irisgarri egiteko beharrezko izan daitezkeen bestelako gailu edo egokitzapenak. Gailu horiekin batera, aukerazko zenbait osagai edo modulu eros daitezke, gailu nagusiarekin batera funtzionamendu-unitate bakarra osatzen baldin badute.

Funtzionamendu-unitate bat baino gehiago izan daitezke laguntzagai. Unitate bakoitzeko, gehienez, hiru ordenagailu lotzeko aukera egongo da, betiere, helburu didaktikoetarako.

Aukerako osagaiak ez dira finantzatuko, gailu ardatzari edo oinarrizkoari lotzen ez bazaizkio.

4.– Deialdi honetatik beren-beregi baztertzen dira ondoko hauek: eraikinak birmoldatzeko edo hobetzeko obra zibilak; erabilera orokorreko, hau da, erabilera ez-teknologikoko altzari, gailu eta tresnak; bulegoko altzariak, eta kudeaketako ekipo informatikoak.

5.– Balio Erantsiaren gaineko Zerga diruz lagundu daitekeen kontzeptua da, entitate onuradunak benetan ordaindu badu; inoiz ez da gastu lagungarritzat hartuko ondoren berreskuratu edo konpentsatu daitekeenean.

6.– Laguntza hauei dagokienez, egindako gastutzat hartuko da deialdi honek ezarritako epean egin eta ebazpen honetan ezarritako gastuak 2026ko abenduaren 1a baino lehen ordaindu direnak.

4. oinarria.– Eskarien aurkezpena, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

1.– Interesatuta dauden euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek, pertsona juridikoak direnez, dirulaguntza-eskariak eta ondoko izapideak bide elektronikoa erabiliz soilik aurkeztuko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoan <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1215605> helbidean eskuragarri egongo den formularioaren bitartez.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharko den dokumentazioa bide elektronikoa erabiliz aurkeztuko da soilik.

Identifikazio eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan eskura daitezke: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

Euskaltegi bakoitzak eskari bakarra egin ahal izango du.

2.– Eskariak eta dagokion dokumentazioa aurkezteko epea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2026ko urriaren 16an amaituko da.

3.– Hauek dira eskaerekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak:

a) Ekipamendu teknologikoaren deskribapena, beharra eta aurreikusitako helburuak azaltzen dituen memoria.

b) Eskuratu beharreko ekipamendu teknologikoaren aurrekontua edo, hala badagokio, faktura.

c) Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako zehaztutako zenbatekoak gainditzen bada, entitate eskatzaileak ekipamendua eskuratzeko hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu gutxienez eskaeran. Ez du halakorik egin beharko, dena dela, ekipamendua hornituko dituen entitate kopuru nahikorik ez badago merkatuan, ekipamenduaren ezaugarri bereziak direla eta. Halakorik gertatuz gero, behar bezala egiaztatu beharko da eskaeran.

d) Zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean dituela ziurtatzen duten dokumentuak, baldin eta eskatzaileak ukatu badio HABEri baimena egiaztapen horiek zuzenean lortzeko.

5. oinarria.– Aurkeztutako eskariaren hutsuneak zuzentzea.

Aurkeztutako eskarian dokumenturen bat falta bada, edota okerren bat balego, eskaria luzatu duenari jakinaraziko zaio, eta hamar eguneko epea emango zaio okerrak zuzen ditzan, eta adierazi, horrela egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertu beharko dela, dagokion Ebazpenaren bitartez Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 68. artikuluan jasotako baldintzetan.

6. oinarria.– Dirulaguntzen organo eskuduna.

HABE organismo autonomoko zuzendari nagusia da dirulaguntza hauen organo eskuduna. Kudeaketa-lanen ardura HABEko Kudeaketa Zerbitzuko Ekonomia eta Administrazio Unitatearen eta Ikuskatzailetza arloarena izango da.

7. oinarria.– Dirulaguntza emateko prozedura eta zenbatekoa.

1.– Oinarri hauetako baldintza subjektibo eta objektiboak betetzen dituzten eskari-egileek, denboraz eta formaz behar den bezala aurkeztu badituzte eskariak, deialdi honetako dirulaguntzak jasoko dituzte, artikuluko honetako bigarren zatia ahalbideratutako gehieneko zenbatekoan.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoa euskaltegi pribatu edo autoikaskuntza-zentro homologatu bakoitzak eskatutakoaren arabera zehaztuko da. Zenbateko horrek ezin du inola ere I. eranskinean adierazitako gehienekoa gainditu, ezta diruz lagundu nahi den ekipamenduaren erosketa-kostuaren erdia (% 50) ere.

8. oinarria.– Dirulaguntzaren kudeaketa, epeak, ebazpena, publizitatea eta errekurtsioak.

1.– HABEko zuzendari nagusiaren Ebazpenak une oro errespetatuko du DAELaren 22.3 artikuluan jasotako edukia, eta halaber, bertan zehaztuko da eskatutako dirulaguntzak emango diren edo ukatu egingo diren. Bertan adieraziko da erakunde onuradunaren izen soziala, diruz lagundutako zentro eta ekipamendua eta dirulaguntzaren zenbatekoa. Ukatzuz gero, horretarako arrazoi diren zioak jasoko dira.

2.– Ebazpena 2026ko azaroaren 13a baino lehen emango da.

3.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkari ofizialean argitaratuko da, eta jakinarazpen ondorioak eragingo ditu. Argitaratze egunean bertan, eskari-egileek abisua jasoko dute eskarian adierazi duten posta elektronikoan.

4.– Ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari. Horren aurka interesdunek gora jotzeko errekurtoa jar dezakete, Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 legeari eta bertako 121 eta 122 artikuluei jarraikiz.

5.– Deialdi honetako erakunde eskari-egileren batek, eskabidea aurkeztu edo ebazpena eman ondoren, ekipamendu bera eskuratzeko bestelako erakunde publiko baten dirulaguntza jasotzen bada, HABEko zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, gainfinantzaketa gertatuz gero, deialdi honen bidez emandako finantzazioa dagokion kopuruan murriztu dadin.

6.– Ezarritako epea ebazpena jakinarazi gabe amaitzen bada, interesdunak legitimatuta egongo dira dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunagatik ezetsizat jotzeko.

9. oinarria.– Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin.

1.– Deialdi honen kontura ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu horretarako beste edozein erakunde publikok eman ditzakeen laguntzekin, betiere diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketa gertatzen ez bada.

2.– Gainfinantzaketa gertatuko balitz, edota finantzaketa publikoetan aurreikusitako mugak gaindituko balira, murriztu egingo litzateke dirulaguntza, dagokion neurrira doitu arte.

10. oinarria.– Dirulaguntzen ordainketa.

Emandako dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko zaio erakunde onuradunari, gastua behar bezala zuritu ondoren.

11. oinarria.– Dirulaguntzaren zuriketa.

DAELaren 32. artikuluaekin bat etorriz, entitate onuradunak, 2026ko abenduaren 1a baino lehen, bide telematikoko aplikazioa erabiliz eta legezko ordezkariaren sinadura elektronikoarekin, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Finantzatutako ekipamendu teknologikoaren erosketaren jatorrizko fakturak eta baita ordainketaren ziurtagiria ere. Ebazpenean aipatzen den ekipamenduaren deskribapena jaso beharko da fakturretan.

b) Txosten bat, eskuratutako ekipamendua jaso, martxan jarri eta erabiltzeari buruzkoa. Txosten horrek, gutxienez, apartatu hauek izango ditu:

– Ekipamenduaren behin betiko kokapenaren deskribapena.

– Eskuratutako ekipamenduaren kalitatearekiko adostasuna, aurreikusitako helburuetarako egokia dela, eta harrera-proben emaitza.

c) Erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du entitate onuradunak, zeinaren bidez adieraziko duen ekipamendu bera eskuratzeko beste erakunde publiko edo pribatu batek eman dako laguntzarik jaso duen ala ez, eta hala balitz, kofinantzaketa hori justifikatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko du.

## 12. oinarria.– Onuradunaren betebeharrak.

Ebazpen honetan definitutako dirulaguntzen onuradun diren erakundeek, DAELaren 42. artikuluan ezarritako lankidetzaz-obligazioa betetzeaz gain, DAELaren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak ere bete beharko dituzte, bai eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLOaren) 14. artikuluan adierazitakoak ere, eta zehazki baldintza hauek:

a) Diruz lagundutako jarduera aurrera eramatea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

b) Dirulaguntza eman duen erakundearen aurrean justifikatzea emate hori eragin duten edo laguntzaz baliatzea eragin duten baldintzak bete eta jarduera bera aurrera eramatea.

c) Beste edozein Administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea HABEri. Era berean, laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu egin baldin bada, horren berri ematea laguntza eman duen erakundeari.

d) 11. oinarrian aurreikusitako fakturak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta gutxienez lau urtez, ekarpen horretatik aurrera onuradunek zaindu beharko dituzte egin dituzten eta laguntzaren xede diren gastuak egiaztatzen dituzten faktura eta gainerako dokumentu guztiak, bai eta deialdiari buruzko beste edozein dokumentazio ere. Erakunde onuradunak Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman behar die erakunde bi horiek beren egin-kizunaren barruan deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz eska diezaioketen edozein informazio eta dokumentazio, hala eskatuz gero.

e) Onuradunek publizitate egokia eman beharko diote aitortutako dirulaguntzaren izaera publikoari, DAELaren 14 i) artikuluan araututakoari jarraikiz. Horretarako, diruz lagundutako ekipamenduan HABEK emandako babesaren berri adierazi beharko da, Eusko Jaurlaritzaren eta HABEren logotipo normalizatua eta «HABEK diruz lagundua» esaldia agerian jarritz.

f) Ebazpen honen ondorioz diruz lagundu diren ondasunak dirulaguntza eman den xede jakinera bideratuko dira, gutxienez bi urtez, erregistro publikoetan inskribatzen ez diren ondasunak diren neurrian.

g) Gainfinantzazioa beste dirulaguntza batzuekin batera gertatzen denean, dirua itzultzeko betebeharra gauzatzeko eskatuko du HABEK, gainditutako zenbateko osoa eskatuz, deialdi honen baitan emandako dirulaguntzen muga arte.

## 13. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

DAELaren 25. artikulua ezartzen dituen mugei kalterik egin gabe, dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatuz gero, eta betiere dirulaguntzaren helburua bete bada, edo beste erakunde publiko edo pribaturen batek, aldi berean, bestelako dirulaguntza edo laguntzarik eman badu, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu egin daiteke. Dirulaguntza jasotzeko baldintzen aldaketatzat joko dira, halaber, behar bezala justifikatzen edo egiaztatzen ez diren gastuak; kasu horretan, beraz, egokiro justifikatu edo egiaztatu ez diren gastuak laguntzeko diru-kopuruak aldatzeko ebazpena emango da.

14. oinarria.– Dirulaguntzarako eskubidea galtzeko edo itzultzeko arrazoiak. Arau-haustekak eta ez-betetzeak.

1.– Edozein kasutan, deialdi honetako onuraduna lotuta dago DAELaren 13. artikuluan jasotako xedapenetan zehaztuta dauden lege-hausteen eta ez-betetzeen erregimenarekin. Nolanahi ere, DLOren IV. tituluak ezartzen dituen arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko zaio deialdi honi.

2.– Dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horiei dagozkien berandutze-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, DAELaren 36. artikuluan, DLOaren 37. artikuluan eta agindu honetan ezarritakoaren arabera, eta, zehazki, DAELaren 40. eta 41. artikuluetan ezarritako hitzetan eta bertan adierazitakoari jarraikiz.

DAELaren 36. artikuluan eta DLOaren 37. artikuluan azaldutako kausez gain, honako hauek ere dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzeko edo dirulaguntza itzultzeko kausatzat hartuko dira:

- a) Onuradunak dirulaguntzari uko egiten badio.
- b) Deialdi honetako oinarrien eta administrazio-agirien ez-betetze larria (osorik edo zati batez).
- c) Dirulaguntza ebazpen honetan ezarritako epeetan ez erabiltzea, justifikatuta ez badago behintzat.
- d) Ebazpen honetan ezartzen den moduan HABEren laguntza jaso dela ez adieraztea.

3.– Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, dirulaguntza ordaindu ondoren justifikatzen bada ekipamendu zientifiko bera erosteko beste erakunde publiko edo pribaturen baten kofinantzaketa jaso dela, dirulaguntza murriztu egingo da, eta jasotako dirulaguntzaren zati proportzionala itzuli beharko da.

4.– Dirua itzultzeko, DAELaren 40. eta 41. artikuluetan horretarako ezarritako prozedura beteko da. Nolanahi ere, hori ez da eragozpen izango egin beharreko beste ekintza guztiak bideratzeko. Aipatutako diru-kopuruak diru-sarrerara publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

15. oinarria.– Datuen tratamendua.

Dirulaguntza-deialdi honetan adierazitako datu pertsonalak eta egiaztatze-prozeduran sortzen direnak, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2016/679 (UE) Erregelamenduak araututakoari jarraikiz, «Euskaltegien eta Autoikaskuntzarako Zentro Homologatuen Erregistroaren Kudeaketa» izeneko tratamenduan tratatuko dira, ondoren zehazten diren helburuetarako:

- HABEk euskaltegien eta autoikaskuntzarako zentro homologatuen finantzaziorako bideratzen dituen dirulaguntzen kudeaketa.
- HABEri atxikita dagoen euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroaren kudeaketa.

HABEko zuzendari nagusia izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna.

Tratamendua beharrezkoa da legez ezarritako betebeharrak gauzatzeko eta interes publikoa den jarduera sustatzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko.

Interesdunak bere datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea izango du, baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Halaber, bere datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria eskura dezake helbide honetan: <http://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa-haben/s23-edukiak/eu/>

## I. ERANSKINA

## EUSKALTEGI BAKOITZEKO GEHIENEO DIRULAGUNTZA

Erregistro zenbakia	Euskaltegiaren Izena	Ikasle-kopurua 2024-2025 ikasturtea	Gehieneko dirulaguntza (euro)
263	Aixkiria	156	683,54
195	Amurrioko AEK	109	477,60
303	Arana AEK	337	1476,62
807	Bai By Gasteiz	369	1616,83
241	Hegoalde	396	1735,14
278	Ikagasteiz	1750	7667,91
274	Laudioko AEK	128	560,85
199	Lautadako AEK	84	368,06
803	Mondragon Lingua Gasteiz	126	552,09
279	Oiongo Euskaltegia	259	1134,85
79	Udaberria	704	3084,69
99	Zadorra AEK	253	1108,56
941	AEK E-Uskaltegia	935	4096,85
285	Altza	181	793,08
154	Amara Berriko AEK	194	850,04
276	Andoingo AEK	253	1108,56
156	Antiguako AEK	218	955,20
808	Bai By Donostia	199	871,95
177	Bidasoko AEK	263	1152,38
207	Debagoienako AEK	275	1204,96
100	Eibarraldeko AEK	299	1310,12
259	Goierriko Goiztiri AEK	322	1410,89
157	Groseko Irrintzi AEK	367	1608,07
204	Hernanialdeko AEK	433	1897,26
32	Herri Jakintza	178	779,94
252	Hitzez	375	1643,12
6	Ilazki	710	3110,98
174	Kostako AEK Euskaltegia	275	1204,96
167	Lasarte-Oriako AEK	170	744,88
40	Legazpi 6	378	1656,27
31	Leizaur	1028	4504,35
270	Maizpide	743	3255,57
804	Mondragon Lingua Donostia	87	381,20
231	Oarsoaldeko AEK	661	2896,28

2026ko ekainaren 1a, astelehena

Erregistro zenbakia	Euskaltegiaren izena	Ikasle-kopurua 2024-2025 ikasturtea	Gehieneko dirulaguntza (euro)
169	Urolako AEK	196	858,81
33	Urrats	722	3163,56
272	Urumea	512	2243,41
940	AEK – Uda Barnetegiak	118	517,04
222	Arratiako AEK	185	810,61
801	Bai By Bilbo	762	3338,83
106	Barakaldoko AEK	253	1108,56
10	Bilbo Zaharra	1032	4521,87
133	Busturialdeko AEK	207	907,00
294	Deustuko Unibertsitatea	246	1077,89
124	Durangaldeko AEK	267	1169,90
223	Enkarterriko AEK	168	736,12
127	Ermuko Kaltxango AEK	162	709,83
206	Gabriel Aresti	1802	7895,75
71	Gotzon Garitaonandia	168	736,12
284	Hego Uribeko AEK	349	1529,20
114	Indautxu-Iralako AEK	314	1375,84
78	Jose Antonio Agirre	152	666,01
9	Juan Mateo Zabala	805	3527,24
66	Labayru Fundazioa	486	2129,49
141	Lea Artibaiko AEK	291	1275,06
116	Lizardi-AEK	353	1546,73
255	Matxintxu-Larrako AEK	285	1248,77
146	Meatzaldeko AEK	276	1209,34
302	Mikelats	141	617,81
806	Mondragon Lingua Bilbao	117	512,65
143	Portugaleteko Xaribari AEK	319	1397,75
144	Santurtziko AEK	305	1336,41
119	Santutxuko AEK	319	1397,75
188	Sestaoko AEK	187	819,37
139	Txorierri-Urbe Butroeko AEK	277	1213,72
8	Ulibarri	1795	7865,08
104	Uribe Kostako AEK	601	2633,38
295	Zornotzako Barnetegia	1141	4999,47

## II. ERANSKINA

Euskaltegi pribatuek eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratzeko eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat baliabide horiek irisgarri egingo dituzten gailu eta egokitzapenak ezartzeko dirulaguntzak  
(Kodea: 1215605)

Egoitza Elektronikoan eskuragarri dago formulario hau

**Instrukzio-organo hartzailea:**

HABE, HELDUEN ALFABETATZE BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

Konektatutako pertsona: \_\_\_\_\_

Profil bat baino gehiago dituzu. Adierazi, mesedez, zein den eskatzailea:

- Pertsona/entitate gisa ari naiz espedientean
- Ordezkarri gisa ari naiz

**Pertsona juridiko/entitate gisa ari naiz espedientean:**

\*Entitatearen izena: \_\_\_\_\_ IFK: \_\_\_\_\_

\*Egoitza soziala: \_\_\_\_\_

**Entitatearen ordezkari gisa ari naiz espedientean:**

\*Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ NA: \_\_\_\_\_

**Jakinarazpen-hartzailea:**

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio: \_\_\_\_\_

Ondorengo datuak Administrazioak jakinarazpenaren jasotzaileari buruz dituenak dira:

\_\_\_\_\_

**Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala**

Elektronikoa: Nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharrezkoa da.

*Oharra: 10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikoa batera sartzen ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta Administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.*

**Abisuak jasotzeko datuak**

Posta elektronikoa \_\_\_\_\_

Mugikorra \_\_\_\_\_

**Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza**

- Euskara
- Gaztelania

**OINARRIZKO DATUAK**

Zer lurraldetan daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak:

\* Lurraldea: \_\_\_\_\_

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK**

Eskatzaileak aitortzen du:

**Bateragarritasun-adierazpenak**

- Ez du jasotzen helburu bera duen laguntza edo dirulaguntzarik administrazio publikoetatik.
- Helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza jasotzen ari da administrazio publikoren batetik (atal honetako datuak «Beste finantzazio-iturri batzuk» eremuan zehaztu beharko dituzu).
- Helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza eskatu du administrazio publikoren batean, eta erantzunaren zain dago (atal honetako datuak «Beste finantzazio-iturri batzuk» eremuan zehaztu beharko dituzu).

**Erantzukizunpeko adierazpenak**

- Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
- Ez dauka dirulaguntza lortzeko aukera galdua zehapen irmo baten bidez horrelakorik ezartzen duen edozein legeren arabera. Zehazki, sexuan oinarritutako diskriminaziotatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penala jaso izana, zehapenean ezarritako epea oraindik gainditu ez bada.
- Ez du LGTBifobia eragin, bultzatu edo sustatu, ez eta bihurketa-terapiak sustatu edo egin ere (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).
- Ez da dirulaguntzen itzulketagatik hasitako eta artean izapidetzen ari diren prozeduretan parte, eta horrelakoren batean parte hartu izanez gero, prozedura horiek amaituta egon behar dute.
- Onuradunak giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatuko ditu eta, ondorioz, ezin izango ditu agerian eduki, horiei dagokienez, herritarrentzako laidogarriak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen edo indarkeria iradokitzen duten ikurrak edo elementuak; bereziki emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren kontrakoak edota LGTBifobia erakusten dituztenak.

\* Aitortzen dut hemen jasotako datu guztiak egiazkoak direla eta osorik daudela, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaritzen dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

### **ORGANO INSTRUKZIO-EGILEAK OFIZIOZ KONPROBATZEA**

HABEk ofizioz egiaztatuko ditu honako datuak:

- HABEren euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroyen Erregistroan inskribatuta egotea eta datu guztiak egunean egotea.
- Zerga zein Gizarte Segurantzza arloko betebeharrak egunean dituela euskaltegiak edota autoikaskuntza zentroak ( elkarreragingarritasun sistemen bidez).

Ofiziozko egiaztatze prozedura honen aurka egonez gero, klik egin hurrengo laukian:

- Aurka egiten diot prozedura honetako organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzeari (39/2015 Legearen 28. artikulua).

*Oharra: onuraduna datuok ofizioz egiaztatzearen aurka agertzen bada, Euskaltegien HABEko Erregistroko eta Zerga zein Gizarte Segurantzza arloko dokumentuak aurkeztu beharko ditu.*

### **ERANTSITAKO DOKUMENTUAK**

- Ekipamendu teknologikoaren deskribapena, beharra eta aurreikusitako helburuen Memoria (4. oinarriko 3. ataleko a) letra).
- Eskuratu beharreko ekipamendu teknologikoaren aurrekontua edo, horrela badagokio, fakturak (4. oinarriko 3. ataleko b) letra).
- Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako zehaztutako zenbatekoak gainditzen badu, ekipamendua eskuratzeko hornitzaile ezberdinen eskaintzak (4. oinarriko 3. ataleko c) letra).